

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2 h 5 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 34 item. • Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

EMAKUMEEK ERE SORTUA

Historiak bigarren mailan utzi baditu ere, emakumeek zer esana izan dute Bilboren garapenean. Askok uste dute emakumea industrializazio-garaian hasi zela lanean etxetik kanpo, baina XIV. mendetik ari da horretan. *Zenbat Gara* elkarteak Bilbotik ibilaldia egin du emakume horiek ezagutarazteko. *Emakumeak Bilboko historian* izeneko ibilaldi gidatua eskaini dute elkartekoek, Bilbo eraikitzeke garaian emakumeek egin duten ekarpena erakusteko. Izan ere, 1300. urtetik emakumeek hirian lan egin dutela azpimarratu dute, eta ez hori bakarrik, orduetik egin diren zenbait lan oraindik ere emakumeek egiten dituztela. Bilbok mendeetan izan duen garapena ulertzeko, ibilaldian zazpi geldione egin dituzte, denak hainbat garai eta testuingururi lotuta. Horietako geldione batzuk aipatuko ditugu.

San Anton eliza. Bilboren historia modu ofizialean 1300. urtean hasi zen, Diego Lopez Harokoak hiri-gutuna eskuratu zuenean. Bizkaiko jauna zela lortu zuen Bilbok izendapen hori, baina Diego baino lehen, Maria Diaz Harokoa izan zen Bizkaiko andere. 1288an Mariaren aita hil, eta ondorengoa bera izan zen. Baina ezin izan zuen kargu hori bete, senarra zuen Joanes Tarifakoa kartzelan zegoelako. Horiek horrela, Diego Lopez Harokoak unea aprobeixatu eta jaurerriaren jabe egin zen. Bizkaiko jauna 1309. urtean hil zen, eta kargua berriz ere Maria Diaz Harokoak hartu zuen. Handik urtebetera, bigarren hiri-gutuna lortu zuen, eta Bilbo berri fundatu zuen. Hala ere, Diaz Harokoak ezin izan zion jaurerriaren aginteari luzaroan eutsi, senarra hiltzarekin batera Joanes semeari utzi ziolako kargua. Baina hura ere denbora-tarte motzean hil, eta Diaz Harokoak hirugarrenez Bizkaiko andere izendatu zuten. Azkenerako, 64 urte zituela utzi zuen kargua, 1334. urtean.

Atxuri. Hiri berria sortzen ari zen pixkanaka, eta prozesu horretan, ospitale bat beharrezkotzat jo zen. Bilboko harresietatik kanpo eraiki zuten lehenengoa, XIV. mendean. Garai hartan, ordea, ospitaleak ez zuen gaur eguneko funtzioa bakarrik betetzen. Batetik, behartsuen zahar--etxe tankerako bat zen, eta bestetik, gaixoak sendatzeko lekua ere bazen. Horrez gain, portura iristen ziren arrantzaleek eta Donejakue bidea egiten zuten erromesek indarrak berreskuratzeko erabiltzen zuten. Eta ospitale

horretan emakumeen lana ezinbestekoa izan zen. Gaixozainak ziren, eta horretarako Udalak ematen zien lizentzia. Oro har, langile horiek mojak izaten ziren, eta ospitalearen ondoan zegoen eraikin batean bizi ohi ziren. Baina beren lanbidea ez zen ospitalera bakarrik mugatzen. Batetik, etxez etxe emagin ere lan egiten zuten, eta bestetik, inude-ardura ere hartzen zuten, hau da, beste emakume baten haurrak zaintzen eta hazten zituzten. Orduan, haur asko abandonatzen zituzten, eta horien zaintza Udalak hartzen zuen. Eta horien ardura nork hartzen zuen? Inudeek. Alde horretatik, beraz, lan handia egiten zuten.

Mesedeetako zubia. Moja horiek independentzia ekonomikoa zuten, eta hori gizartearentzat deserosoa zen. Hori dela eta, moja guztiak Mesedeetako Komentura eramane zituzten XVI. mendean. Denborarekin, ordea, lehen goi-mailako maistra-ikasketak jarri zituzten eraikin horretan. Ondoren, 1893an gizonezkoentzat zabaldu zuten, baina horiek interes gutxi erakutsi zuten ofizio horretarako, eta 1902tik emakumeentzako goi-mailako eskola izan zen.

Erriberako zubia. Merkataritzan ere emakumeek ezinbesteko garrantzia izan zuten Bilbon. Nekazariak edo sardina-saltzaileak feminizatutako lanbideak izan ziren. Ibaiertzean aritzen ziren lanean, gaur eguneko Erriberako merkatuaren inguruan. Esaterako, 1510ean, sardina-saltzaileek arazo batzuk izan zituzten zamalanak egiten zituzten gizonekin, lekuz aldatu behar zutelako esaten baitzieten. Taldean borrokatu ziren, eta salmenta-postu bat edukitzea lortu zuten. Ibaiertzean, bestetik, zamalanak ere egiten zituzten emakumeek, minerala garraiatuz. Buru gainean eramaten zuten burdina eta kronikek diotenez, bi gizonen laguntzarekin jarri behar izaten zieten karga buruan. Emakume horiek ere era kolektiboan borrokatu ziren 1927. urtean, lan-baldintzak hobetzeko. Baina ez ziren zamalariak lan-indarrarekin jarduten zuten bakarrik. Zirgariak ere emakumeak ziren, gehienetan. Buruan korda bat jarri, eta itsadarraren bi aldeetatik gondolak tiraka eramaten zituzten itsasadarrean gora.

MUÑAGORRI GARMENDIA, Lander. Berria,
2013ko martxoaren 12a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zer helburu du *Zenbat Gara* elkarteak?

- a) Bilboko hiria ezagutarazteko ibilbide gidatua egitea.
- b) Bilboko historian emakumeek egindako lana ezagutzera ematea.
- c) Elkarteko emakumeek Bilbori egindako ekarpena jakinaraztea.

2. Zer dakigu geldiuoneez?

- a) Bilboren historian zenbait geldiuone egin zirela.
- b) Geldiuone bakoitza Bilboren sasoi eta egoera bati buruzkoa dela.
- c) Geldiuone bakoitza mende desberdin bati lotuta dagoela.

3. Nor izan zen *Maria Diaz Harokoa*?

- a) Aita hil zitzaionean jaurerriaren jabe egin zena.
- b) Bilboko lehenengo hiri-gutuna lortu zuena.
- c) Bizkaiko andere izan zen hirutan.

4. Zertarako erabiltzen zen *XIV. mendean ospitalea*?

- a) Soilik arrantza eta erromes gaixoak sendatzeko erabili zen.
- b) Zahar-etxea eta indarberritzeko lekua ere izan zen, besteak beste.
- c) Gaur egun duen bezalako egitekoa zuen orduan ere.

5. Zer lan egiten zuten *mojek*?

- a) Gaixoen zaintzan aritzeaz gain, emagin eta inude ere baziren.
- b) Gaixozainak eta emaginak ziren ospitalean.
- c) Udalak ospitaleko ume gaixoak zaintzeko hartzen zituen.

6. Zergatik da *garrantzitsua Mesedeetako Komentua*?

- a) Bertan *mojek* ekonomia aldetik lehenengoz independenteak izatea lortu zutelako.
- b) Bertan gizonetakoek ere irakasle-ikasketez interesa agertzea lortu zutelako.
- c) Bertan lehenengo irakasle-eskola sortu zutelako.

7. Zer lortu zuten *emakumeek*?

- a) Merkataritzan aritzea zenbait lanetan.
- b) Erriberako merkatuan gizonen ordeztu aritzea.
- c) Merkatuan gizonak bezala aritzea zamalanetan ere.

8. Zer beste lan batzuetan aritu ziren *emakumeak*?

- a) Indarra behar zen lanetan: burdina eta gondolak garraiatzen.
- b) Indar gutxi behar zen lanetan, beste batzuetan lan-baldintzak txarrak zirelako.
- c) Zamalari-lanetan izan ezik, lan-indarra behar zen guztietan.

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

MATEMATIKA ETA METEOROLOGIA

Ekaitza, trumoa, zaparrada, zirimiria, txingorra, haize-ekaitza, uholdea, tsunamia, eta beste hitz asko ezagunak ditugu eguraldiari eta naturaren beste indarrei buruz ari garenean. **9**

Ondorioa haize-bolada galantek hainbat zuhaitz errotik ateratzea izan zen. Antizikloia edo borraska izatea ez da inolaz ere berdina. Izan ere, dena aldatzen da eguraldiarekin, umorea eta osasuna barne.

Gizakiaren eta eguraldiaren zein naturaren arteko harremana antzinatik dator. Izan ere, gizakiaren asmakizunik handienetarikoa sua izan zen. Sua sortzen asmatu zuenean, aberea gizaki bihurtu zen, klima eta eguraldia engainatuta. Herri bakoitzak bere ezagutza eta ohiturak garatu ditu.

10

Egunkariek eta Internetek oso modu orokorrean azaltzen duten eguraldi-iragarpena nahikoa zaigu askotan. **11** Ziur Himalaian dabilzan mendizale euskaldunek horri buruz asko dakitela!

Horretan guztian ere behar-beharrezkoa da matematika, zientzia guztien oinarri gisa.

12

Azken batean, eguraldiaren berri emateko eta jakiteko zenbaki gutxi batzuk nahikoa dira. Galileok zioen bezala: «Natura matematikaren hizkuntzan idatzita dago». Baina natura berez librea da, eta, nahiz eta asko saiatu, matematika ez da sarritan nahikoa izaten eguraldia aurreikusteko. Horrelakoetan izaten dira ustekabeko lurrikarak, uholdeak, tsunamiak, eta beste hainbat bortizkeria meteorologiko.

Beraz, planeta bizirik dago eta askotan eguraldiak sekulako sorpresak gordetzen ditu. Horrek ere badu matematikarekin zerikusia, kaosaren teoriarekin hain zuzen ere. Edward Norton Lorenz matematikari eta meteorologo iparramerikarrak nabaritu eta azpimarratu zuen 1960an meteorologian dauden eredu matematikoen

ekuazioen ebazpen edo soluzioetan sortzen den oreka eta ordena falta. **13** Lorenzek bere garaian eguraldiaren arloan aurkitutako kaos hori, ondoren beste eremu askotan nabaritu da, natura erabat konplexua baita.

Lorenzen ekarpena erraldoia izan zen. **14** Horretarako, lehen aipaturiko eguraldiaren ekuazio erraldoiak erraztuz, hiru ekuaziotako sistema sinpleago bat asmatu zuen, eta haren ebazpenak kalkulatzuz eta margotuz, kaosa nabaritu zuen.

Horrexegatik hain zuzen ere, gaur egun, meteorologiaren arloan datuen asimilazioa da gai nagusienetarikoa bat. Horretan ere matematika da protagonista. Izan ere, gaur egun, hainbat neurri jasotzeko gaitasuna dugu: temperatura, airearen abiadura, hezetasuna, etab. **15**

Matematikaren arlo horrek erakusten digu datu pila horiekin gaurko eguraldia nola adierazi, eta hortik aurrera, matematikan eta neurketan oinarrituz, lehen azaldu dugun bezala, hurrengo egunetakoak aurreikusi.

Superordenagailuek gero eta kalkulatzeko gaitasun handiagoa dute. Beraz, gero eta arinago eta epe luzeagoetarako eguraldia aurreikusteko moduan izango gara. **16**

Baina, gainera, kontuan izan behar da beti natura askea dela kaosa sortzeko nonahi, eta, nahiz eta asko saiatu, beti geratuko dela guretzat ezezaguna den eremu zabalegia. Newtonek esan zuen bezala: «Ezagutzen duguna ur-tanta da, ezagutzen ez duguna ozeanoa». Ezaguna da baita kaosaren inguruko esaldia: «Brasilen tximeleta batek hegalk astindu eta Euskal Herrian urakana!»

ZUAZUA, Enrique. Administrazioa Euskaraz,

2012ko urria. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- A. Baina, noski, bidaia luzeak eta arrisku handiagoko ekintzak hasten ditugunean, inguru horietako aurreikuspen zehatza behar-beharrezkoa izaten zaigu, eta halakoetan, askotan, lekuko prentsa espezializatuan soilik aurki ditzakegu.
- B. Kaosa dagoenean, ezin da ezer aurreikusi, gauzak bere kabuz aldatzen baitira, bistako arrazoirik gabe.
- C. Baina duela urte pare bat, adibidez, ziklogenesia ere izan genuen eta zer zen ere ez genekien.
- D. Baina nola kudeatu eta erabili datu horiek guztiak? Denek dute garrantzi bera?
- E. Eguraldia, aldiz, ez da leku jakin batean gertatzen ari den zerbaiten une-unekeo argazkia baino, eta leku horretako historia naturalaren une hori ezagutaraztea da duen balio bakarra.
- F. Euskal Herrian, adibidez, artzainek esandakoari egiten diogu jaramon, haiek ezagutzen baitituzte inork baino hobeto naturaren gorabeherak, itsasertzean arrantzaleek dakiten bezala.
- G. Izan ere, eguraldiaren iragarpena matematikan oinarritzen da, eta zenbakien bidez aurkezten zaigu: tenperatura, hezetasuna, euriak dakarren ur kopurua, haizearen abiadura...
- H. Baina arazoa ez da soilik ordenagailuen bidez guztiz konponduko. Natura hobeto ulertzeko behar handia dugu eta, horretarako, eredu eta tresna matematiko berriak sortzekoa ere.
- I. Bere ardura zera zen: eguneko datuak eta eguraldiaren aldaketaren ekuazioak ongi ezagutu arren, zergatik zen hain zaila ondorengo eguneko eguraldia asmatzea?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

Soberakoa	
------------------	--

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

UDAL BERRIAK

Autobus-zerbitzua

Zallako Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari autobusen maiztasuna eta ordutegiak hobetzeko eskatu zion, Enkarterriko eskualdean autobus-zerbitzua hobetzeko asmoz. Beste udal batzuekin batera, zerbitzuaren inguruan eskaera **17** gain, zenbait proposamen zehatz egin zituen udalerraren alde. Honako hauek ezartzeko eskatu zuen, **18**: gaueko zerbitzuak, Enkarterriko mendebaldeko udalerrak eta eskualdeko toki nagusiak lotzen dituen zerbitzua, eta Bilbo eta Zalla lotzen dituen zerbitzu espresa.

Proposamenak **19** ondoren, Aldundiak erantzun egin du. Gaueko zerbitzuei dagokienez, **20** du oraingoz atzeratzea aisialdira zuzendutako gaueko zerbitzuak ematea, eta **21** ematea batez ere lanera edo ikastera joateko mugikortasun-beharrizanei aurre egiteko zerbitzuei.

Udalerrri periferikoak eskualdeko herri nagusiekin lotzeko zerbitzuaren kasuan, Aldundiak uste du gaur egungo **22** egokia dela, bidaiarien eskaera aintzat hartuta.

Azkenik, Bilbora joateko zerbitzu espresari dagokionez, Foru Aldundiak adierazi du gaur egungo eskaera **23** dagoela Bizkaiko hiriburura 30 minutuan behin doazen autobusekin; eta **24**, FEVEren trenbide-sarea edo Cadaguako Korridorea ere erabil daitezkeela.

Bestalde, eskualdeko zerbitzuaren **25** hobetzeko, Enkarterriko udalerrri batzuek egindako eskaera **26** dagokionez, Aldundiak honako hau erantzun du: batetik, proposamenak kontuan hartuko dituela, eta, bestetik, behin betiko proiektuan sartuko duela udalerrri horiei **27** dieten zerbitzuen definizioa, udalek planteatu duten proposamenaren ahalik eta antzekoena, gainera.

<Zallainfo>, 2013ko urtarrila-otsaila.Egokitua.

Herri-lanak

Zalla inguruan egindako Mugikortasun Plana aintzat hartuta, lehenengo jarduerak egin dira bide-antolamendua hobetzeko asmoz. Orain arte, bertan zeuden bideen **28** mugak eta autobus publikorako geltokirik ez egoteak inguru horretako ibilgailuen trafikoa etengabe **29** eragin dute, eta horrekin batera, trafikorik gehien egon ohi den puntako orduetan, zirkulazio-arazo larriak eragin ditu. Proposatutako jardueren helburua da autobus-geltokiak berriz **30** eta autobus publikoen geltokirako gune espezifikoak proposatzea.

Aipatutako obrekin batera, Zallako Udalak egokitutako jo du gune horietako oinezkoen galtzadetan irisgarritasuna **31**. Horrela, hirigunean zeuden traba arkitektonikoak murriztu egingo dira, eta minusbaliotasuna eta **32** murriztua duten pertsonen garraioa erabiltzeko erraztasunak emango zaizkie.

33, aipatutako bi jarduerekin batera, eta horiek guztiak barne hartzeko asmoz, oinezkoentzako hiru **34** goratu egin dira:

- 1.gunea: Marista anaiak kalean, udaletxearen tartean, bi goratu.
- 2.gunea: Marista anaiak kalean, bidaiaria-agentziaren ondoko semaforoan dagoena goratu.

<Zallainfo>, 2012ko iraila-urria. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

17. a) jabetzeaz
b) eusteaz
c) aurkezteaz
d) aholkatzeaz
18. a) hain zuzen ere
b) bestela
c) ordea
d) hala ere
19. a) aztertu
b) banatu
c) azpimarratu
d) trukatu
20. a) okertu
b) gomendatu
c) sortu
d) sakondu
21. a) zaletasuna
b) egonaldia
c) lehentasuna
d) estualdia
22. a) eskubidea
b) sustraia
c) ordezkoa
d) eskaintza
23. a) kokatuta
b) berrituta
c) bultzatuta
d) beteta
24. a) aldiz
b) gainera
c) beraz
d) horretarako
25. a) baldintzak
b) aitzakiak
c) irudiak
d) bezeroak
26. a) bakartiari
b) baztertuari
c) axolagabeari
d) bateratuari
27. a) ekiten
b) abiatzen
c) jokatzen
d) eragiten
28. a) marrazketaren
b) zabaleraren
c) erakusketaren
d) harreraren
29. a) haustea
b) oztopatzea
c) zorroztea
d) bizkortzea
30. a) oinarritzea
b) salatzea
c) ezartzea
d) astintzea
31. a) sailkatzea
b) jasatea
c) hobetzea
d) igarotzea
32. a) ondasun
b) bizitasun
c) mugikortasun
d) adostasun
33. a) Era berean
b) Orduan
c) Horregatik
d) Azken batean
34. a) aurkibide
b) pasarte
c) bidezain
d) pasabide

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN .

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zu udal bateko administraria zara. Zure lana egiteko ez dago beste inor eta horrek arazoak sortzen dizkizu lan asko dagoenean, opor-egunak hartzeko garaian...

Idatz iezaiozu eskutitza alkateari zer arazo duzun azaltzeko eta laguntza eskatzeko, eta saia zaitetz konbentzitzen beste langile bat kontratatzeko.

2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zure inguruko gazteek ez badute alkoholik hartzen, ez omen dute ondo pasatzen asteburuetan, jaietan... Zuk, ordea, beste iritzi bat duzu, eta, gainera, uste duzu alkoholaren kontsumoa debekatzeak ez duela ezertarako balio.

Herriko aldizkarian zure iritzia ematea erabaki duzu.

Idatzi zein diren zure inguruko gazteen ohiturak eta edateko arrazoiak, eta zuk zer iritzi duzun eta zergatik uste duzun debekuek ez dutela eraginik aisialdiko ohituretan.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «Emakumeek ere sortua»

1.	B	2.	B	3.	C
4.	B	5.	A	6.	C
7.	A	8.	A		

- **2. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- **Irakurgaia:** «Matematika eta metereologia»

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	C	F	A	G	B	I	D	H

Soberakoa	E
-----------	---

- **3. ariketa:** hutsuneak bete.
- **Irakurgaia:** «Udal berriak»

17.	C	18.	A	19.	A
20.	B	21.	C	22.	D
23.	D	24.	B	25.	A
26.	D	27.	D	28.	B
29.	B	30.	C	31.	C
32.	C	33.	A	34.	D